

Aristotelesen substantzia materia, konposatu eta forma gisa

Aristotle's substance as matter, compound, and form

JAVIER AGUIRRE SANTOS

Filosofia saila (UPV/EHU)

LABURPENA. Metafisikaren erdiko liburuetan zehar, Aristotelesek “izan” terminoaren lau zentzuak —alegia, akzidentalki, berez, egiazko eta faltsu gisa, eta potentzian eta egintzan— ikertzen ditu. Izatearen zentzu horien artean zentzu lehena substantziari dagokiola argudiatu ondoren, Aristotelesek argudiatzen du substantzia, zentzu estuan, forma gisa ulertu behar dela, eta ez materia edo konposatu gisa.

GAKO-HITZAK: izan; substantzia; konposatua; materia; forma.

ABSTRACT. *Throughout the central books of Metaphysics, Aristotle investigates the four senses of the term “being”: accidentally, in itself, as true and false, as potency and act. After arguing that the first sense of being is to be substance, Aristotle argues that the substance, in the strict sense, should be understood as a form, not as a matter or compound.*

KEYWORDS: *being; substance; matter; compound; form.*

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Javier Aguirre Santos. Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea. Filosofia saila (UPV/EHU). Tolosa hiribidea, 70 (20018 Donostia) – javier.aguirre@ehu.eus

Nola aipatu / How to cite: Aguirre Santos, Javier (2019). «Aristotelesen substantzia materia, konposatu eta forma gisa», *Gogoa*, 19, 17-33. (<https://doi.org/10.1387/gogoa.20989>).

Jasoa: 2019-IV-15. Onartua: 2019-VI-20. Aurrena online argitaratua: 2019-VII-9.

ISSN 1577-9424 - eISSN 2444-3573 / © 2019 UPV/EHU



Lan hau *Creative Commons* Aitortu 4.0 Nazioartekoaren lizentziapean dago

1. Badenaren zentzu lehena substantzia da

VII liburuaren lehenengo atalean Aristotelesek badenaren (*to on*) eta substantziaren (*he ousia*) arteko lotura ezartzen du:

... antzina, orain eta beti bilatzen ari dena, eta beti zailtasuna ekar-tzen duena, «zer da badena? (*ti to on*)» alegia, eta «zer da substantzia? (*tis he ousia*)» berdintzat jo daitezke. (VII 1, 1028b2-3)¹

Nola justifikatzen du Aristotelesek *badena* eta *substantzia* ikergaien berbe-ratasuna? IV. liburuaren hasieran filosofoak erantzuna aurreratzen du: «*Ba-dena* zentzu askotan esaten da, baina gauza bakar bati eta izaera bakar bati dagokio» (IV 1, 1003a34)².

Ondoren, liburu berean, filosofoak erantzuna zehazten du:

«Badena» ere zentzu askotan esaten da, baina guztietan printzipio ba-kar bati dagokio. Izan ere, badiren guztiak izendatzen dira, batzuk sub-stantziak direlako, beste batzuk substantziaren afekzioak direlako, beste batzuk, berriz, substantziarako bidea, edo usteldurak, edo gabeziak, edo tasanak, edo eragileak, edo sortzaileak direlako, substantziarenak edo substantziari dagokionez esaten ditugunenak, edo horietako baten edo substantziaren ezeztapenak direlako. (IV 1, 1003b 5-10)³

Badenaren kausei eta printzipioei buruzko ikerketan Aristoteles zentzu-menen substantzietatik abiatzen da, filosofoaren ustetan, haien existentzia eta izaera substantziala inork ez baitu zalantzan jartzen. Bestalde, Aristote-lesek, abiapuntu gisa, bi tesi onartzen ditu: a) badena zentzu askotan esaten da⁴; b) izatearen zentzu guztietan lehentasuna substantziari dagokio⁵. Bade-nari buruzko ikerketa substantziari buruzko ikerketaren bidez aurrera eraman ahal izateko, Aristotelesek bi tesiak egiaztatu behar ditu.

¹ «καὶ δὴ καὶ τὸ πάλα τε καὶ νῦν καὶ αἰεὶ ζητούμενον καὶ αἰεὶ ἀπορούμενον, τί τὸ ὄν, τοῦτό ἐστι τίς ἡ οὐσία» (VII 1, 1028b2-3).

² «τὸ δὲ ὄν λέγεται μὲν πολλαχῶς, ἀλλὰ πρὸς ἓν καὶ μίαν τινὰ φύσιν» (IV 1, 1003a34).

³ «οὗτω δὲ καὶ τὸ ὄν λέγεται πολλαχῶς μὲν ἀλλ' ἅπαν πρὸς μίαν ἀρχήν: τὰ μὲν γὰρ ὅτι οὐσίαι, ὄντα λέγεται, τὰ δ' ὅτι πάθη οὐσίας, τὰ δ' ὅτι ὁδὸς εἰς οὐσίαν ἢ φθοραὶ ἢ στερήσεις ἢ ποιότητες ἢ ποιητικὰ ἢ γεννητικὰ οὐσία ἢ τῶν πρὸς τὴν οὐσίαν λεγομένων, ἢ τούτων τινὸς ἀποφάσεις ἢ οὐσίας» (IV 1, 1003b5-10).

⁴ Aristotelesek *to on pollachos legetai* formula ospetsuarekin adierazten du. Cf. IV 2, 1003a33, 1003b5, V 10, 1018a35, VI 2, 1026a33-b2, VI 4, 1028a5, XI 3, 1060b32, 1061b11, 1064b15, XIII 2, 1077b17, XIV 2, 1089a7, 1089a16. Izatearen zentzu guztiak V 7 atalean azalduta daude.

⁵ *Pantos he ousia protos*. Cf. IV 2, 1003b16-19, VII 1, 1028a32.

1.1. Badena zentzu askotan esaten da

Aristotelesen testuinguru filosofikoan, *badena* (*to on*), *da* (*esti*) eta *izan* (*einai*) hitzek jatorrizko adiera-aniztasun bat adierazten dute. Aniztasun horren adierak edo zentzuak ezin dira adiera bakar batera murriztu; baina zentzu guztiak, azken finean, printzipio bakar batera zuzentzen dira, eta printzipio hura substantzia da. *Metafisikaren* V 7 atalean Aristotelesek izatearen zentzuak zerrendatzen ditu; filosofoaren ustez, *izan*, *badena*, edo *zerbait badela* lau zentzutan esan daitezke: *akzidentalki*, *berez*, *egiazko eta faltsu gisa*, eta *potentzian eta egintzan*⁶.

Zentzu akzidentalari dagokionez, *akzidentea zerbaitetan gertatu eta bere adierazpena egiazkoa izan daiteke, baina ez nahitaez, ezta gehienetan ere* (V 30, 1025a14-15). V 7n filosofoak zenbait adibide aurkezten du:

<Gizaki> zuzena musikaria dela esaten dugu, eta gizakia musikaria dela eta musikaria gizakia dela. Horren antzera, musikaria etxea eraikitzen ari dela esaten dugu, etxegileari musikaria izatea akzidentalki suertatzen zaiolako, edo musikariari etxegilea izatea (...). Eta era berean aipaturiko adibideei buruz ere, gizakia musikaria dela eta musikaria gizakia dela esatean, edo zuria musikaria dela edo musikaria zuria dela esatean; azken adibide horretan biak subjektu berari akzidentalki suertatzen zaiolako esaten baitugu; eta musikaria gizakia dela, musikariari gizakia izatea akzidentalki suertatzen zaiolako. Horrela, bada, akzidentalki diren gauzak horregatik esaten da akzidentalak direla: edo biak <musikaria eta zuria, alegia> *den* gauza berean gauzatzen direlako, edo hura <musikaria, alegia> *den* zerbaitetan gauzatzen delako, edo hura zeinaren baitan predikatzen dena suertatzen den <gizakia, alegia> delako. (V 7, 1017a9-23)⁷

Zentzu nagusian ulertzeaz gain, akzidentea bigarren zentzu batean ere uler daiteke: akzidenteak *substantzian parte hartu gabe gauzari berez egokitzen zaizkion <ezaugarri> horiek* dira. *Adibidez, triangeluan bi angelu zuzen izatekoa* (V 30, 1025a21). Kasu horietan, ezaugarri akzidentalak berez eta nahitaez

⁶ Aristotelesek eskema berbera aurkezten du VII 2, 1026a33-b2, X 10, 1051a34-b1 eta XIII 2, 1089a26-28 pasarteetan. Garrantzitsua da kontuan hartzea Aristotelesen sailkapenean izatearen zentzuak ez direla murrizten akzidente eta berezko zentzuetara. Bestalde, berezko izatea ez da substantziara murrizten; aitzitik, berezko izateak kategorien irudiak ere jasotzen ditu. Izatearen zentzuen inguruko analisirako, ik. Brentano (1995).

⁷ «τὸν δίκαιον μουσικὸν εἶναι φαμεν καὶ τὸν ἄνθρωπον μουσικὸν καὶ τὸν μουσικὸν ἄνθρωπον, παραπλησίως λέγοντες ὡσπερ εἰ τὸν μουσικὸν οἰκοδομεῖν ὅτι συμβέβηκε τῷ οἰκοδόμῳ μουσικῷ εἶναι ἢ τῷ μουσικῷ οἰκοδόμῳ (...) οὕτω δὲ καὶ ἐπὶ τῶν εἰρημένων: τὸν γὰρ ἄνθρωπον ὅταν μουσικὸν λέγωμεν καὶ τὸν μουσικὸν ἄνθρωπον, ἢ τὸν λευκὸν μουσικὸν ἢ τοῦτον λευκόν, τὸ μὲν ὅτι ἄμφω τῷ αὐτῷ συμβεβήκασι, τὸ δ' ὅτι τῷ ὄντι συμβέβηκε, τὸ δὲ μουσικὸν ἄνθρωπον ὅτι τούτῳ τὸ μουσικὸν συμβέβηκεν (οὕτω δὲ λέγεται καὶ τὸ μὴ λευκὸν εἶναι, ὅτι ᾧ συμβέβηκεν, ἐκεῖνο ἔστιν) τὰ μὲν οὖν κατὰ συμβεβηκὸς εἶναι λεγόμενα οὕτω λέγεται ἢ διότι τῷ αὐτῷ ὄντι ἄμφω ὑπάρχει, ἢ ὅτι ὄντι ἐκείνῳ ὑπάρχει, ἢ ὅτι αὐτὸ ἔστιν ᾧ ὑπάρχει οὐ αὐτὸ κατηγορεῖται» (V 7, 1017a9-23). Akzidente terminoa V 30 atalean dago azalduta.

izaten dira, baina ez dute parte hartzen definizioak adierazitako gauzaren esentzian. Bestalde, Aristotelesen *izan* eta *ez izan* (eta *da* eta *ez da*, eta *badena* eta *ez dena*) egiazko eta faltsu gisa uler daitezke. Adib.: *Sokrates musikaria da* egiazko gisakoa eta *Diagonala eta aldean ez dira neurgarriak* faltsu gisakoa *dira*. Subjektu pentsatzailearen senaren afekzio gisa ulertu behar den neurrian, izatearen zentzu hura bigarren mailako zentzua da. Eta izate akzidentalari dagokionez, gauza bera esan daiteke, *bere kausa zehaztugabea baita* (VI 4, 1027b34). Beste pasarte batean filosofoak baieztatzen du *akzidentea ez denetik gertu dagoela* (VI 2, 1026b20).

Izatearen zentzuen artean, Aristotelesek hirugarren bat bereizten du, *potentzia* eta *egintza* izatea⁸, alegia. Aristotelesen sistema filosofikoan *potentzia* eta *egintza*ren doktrina oso garrantzitsua da (haren ikerketari *Fisikaren* zati handi bat eta *Metafisikaren* liburu bat, IX.a hain zuzen, eskaintzen dizkio), bi kontzeptu horietaz baliaturik, filosofoak mugimenduaren inguruko problematika eta errealitatearen egitura hilemorfikoa azaltzen baititu. Ikuspegi ontologikotik bigarrena lehenengoa baino interesgarriagoa da. Baina zer dira *potentzia* eta *egintza*? Beste ezer esan aurretik, esan behar da *potentzia* eta *egintza* era askotan esaten direla. *Metafisikaren* V 12 atalean eta IX. liburuan zehar filosofoak *potentzia* eta *egintza*ren adierak aztertzen ditu. *Potentzia*ren adierarik garrantzitsuenak V 12n ditugu:

Potentzia beste baten baitan dagoen edo beste bat den aldetik bere baitan dagoen mugimenduaren edo bilakaeraren printzipioari esaten zaio; adibidez, eraikitzeke artea eraikiaren baitan ez den *potentzia* bat da; aitzitik, sendatzeko artea sendatuaren baitan gauza daiteke, baina ez sendatua den aldetik. Horrela, *potentzia*, alde batetik, beste baten baitan dagoen edo beste bat den aldetik bere baitan dagoen bilakaeraren edo mugimenduaren printzipioari esaten zaio; baina, beste aldetik, beste batetik edo norberak —beste bat den aldetik— bilakatua edo mugitua izateko duen gaitasunari. (...). Gainera, *potentzia* zerbait ongi egiteko gaitasunari edo ongi egiteko nahimenaren araberrako gaitasunari esaten zaio. (V 12, 1019a15-25)⁹

Eta *egintza*ri dagokionez:

Egintza, hain zuzen, gauzaren gauzatzea da, baina ez *potentzia*n dagoenean esaten dugun bezala: *potentzia*n dagoela esaten dugu, adibidez,

⁸ *Potentzia* eta *egintza* izatearen zentzuari buruzko ikerketa IX. liburuan garatzen da. Liburu horri buruzko iruzkinak Grayeff (1974) eta Furth (1986) lanetan ditugu.

⁹ «δύναμις λέγεται ἢ μὲν ἀρχὴ κινήσεως ἢ μεταβολῆς ἢ ἐν ἑτέρῳ ἢ ἢ ἕτερον, οἷον ἡ οἰκοδομικὴ δύναμις ἐστὶν ἢ οὐχ ὑπάρχει ἐντῷ οἰκοδομουμένῳ, ἀλλ' ἢ ἰατρικὴ δύναμις οὕσα ὑπάρχει ἂν ἐν τῷ ἰατρουμένῳ ἄλλ' οὐχ ἢ ἰατρουόμενος. ἢ μὲν οὖν ὅλως ἀρχὴ μεταβολῆς ἢ κινήσεως λέγεται δύναμις ἐν ἑτέρῳ ἢ ἢ ἕτερον, ἢ δ' ὕφ' ἑτέρου ἢ ἢ ἕτερον (...) ἐστὶ ἢ τοῦ καλῶς τοῦτ' ἐπιτελεῖν ἢ κατὰ προαίρεσιν» (V 12, 1019a15-25).

Hermes egurrean dagoen bezala, eta, lerro erdia lerro osoan bezala, lerro erdia lerro osotik bereiz litekeelako; eta ikertzen ez duena ere jakintsua dela esaten dugu, ikertzeko gai baldin bada. Beste <izatearen zentzu>a *egintzan* da. Azaldu nahi duguna agerian dago banako kasuetan indukzioz, eta ez da guztiaren definizioa bilatu behar, analogia ulertu baiduz. Izan ere, eraikitzailearen eta eraiki dezakeenaren artean den lotura esna dagoenaren eta lo dagoenaren artean ere bada, eta ikusten duenaren eta begiak itxita izanda ere ikusmena duenaren artean, eta materia-tik banandua denaren eta materiaren artean, eta zehaztuta dagoenaren eta zehaztu gabe dagoenaren artean ere bai. Eta desberdintasun hartatik bego, bada, alde batean egintza eta beste aldean potentzia duena. (IX 6, 1048a30-b1)¹⁰

Beraz, izatearen zentzu hura ez da adiera bakarrekoa, beste izatearen zentzuen arabera adiera desberdinak hartzen baititu. Izan ere, potentziak eta egintzak adiera guztiz desberdinak dituzte substantziaren mugimenduari, substantziaren akzidente bati edo substantziaren beraren aldaketari aplikatzen dizkiegunean. Edo, bestalde, potentzia eragilea (artistarena edo sendagilearena) eta potentzia pasiboa (marmolarena edo sendatuarena) potentzia edukitzeko bi modu desberdin direlarik. Baina, orokorrean, *potentzia* zerbait izateko, egiteko edo jasotzeko gaitasuna da. Gaitasun hura egintzaratzera (gauzatzera) bideratzen da. *Egintza*, berriz, potentzia gauzatzea, hau da, potentziaren burutze betea da. Horrela, esaten dugu landaturiko hazia potentzian den garia dela, eta galburu heldua egintzan den garia dela. Antzeko moduan, esaten dugu artista lantzen ari den marmolezko blokea potentzian dagoen eskultura bat dela, eta eskultura burutua, berriz, egintzan dagoela.

Ikuspegi metafisikoari dagokionez, potentzia eta egintzaren doktrinak garrantzi handia du, haren bidez errealitatearen mugimendua eta aldaketa azaldu baitaitezke errealitatea bera ukatu gabe. Aristotelesen aurretik, Heraklitok eta Parmenidesek bilakaera, aldaketa eta mugimendua ez-izate-tik izaterako prozesutzat edo izate-tik ez-izaterako prozesutzat hartu zituzten. Ikuspuntu horretatik, Platonen eta Aristotelesen interpretazioen arabera, bi jarrera metafisiko besterik ez zegoen: edo errealitate osoa aldaketa hutsa da eta, ondorioz, iraunkortasun oro itxura hutsa da (Heraklito), edo errealitatea guztiz iraunkorra da eta, ondorioz, aldaketa eta mugimendua sentimenen engainu hutsa dira (Parmenides). Aristotelesek *aporia* gainditzen du, mugimendua eta aldaketa ez baitira ez-izate-tik izaterako prozesuak, *potentzian*

¹⁰ «ἔστι δὴ ἐνέργεια τὸ ὑπάρχειν τὸ πρᾶγμα μὴ οὕτως ὥσπερ λέγομεν δυνάμει: λέγομεν δὲ δυνάμει οἶον ἐν τῷ ξύλῳ Ἑρμῆν καὶ ἐν τῇ ὅλῃ τὴν ἡμίσειαν, ὅτι ἀφαιρεθεὶς ἄν, καὶ ἐπιστήμονα καὶ τὸν μὴθεωροῦντα, ἂν δυνατὸς ἦ θεωρῆσαι τὸ δὲ ἐνεργεῖα. δῆλον δ' ἐπὶ τῶν καθ' ἕκαστα τῇ ἐπαγωγῇ ὁ βουλόμεθα λέγειν, καὶ οὐ δεῖ παντὸς ὄρον ζητεῖν ἀλλὰ καὶ τὸ ἀνάλογον συν ὁρᾶν, ὅτι ὡς τὸ οἰκοδομοῦν πρὸς τὸ οἰκοδομικόν, καὶ τὸ ἐργηγορὸς πρὸς τὸ καθεῦδον, καὶ τὸ ὄρῶν πρὸς τὸ μῦον μὲν ὄψιν δὲ ἔχον, καὶ τὸ ἀποκεκριμένον ἐκ τῆς ὕλης πρὸς τὴν ὕλην, καὶ τὸ ἀπειργασμένον πρὸς τὸ ἀνέργαστον. ταύτης δὲ τῆς διαφορᾶς θατέρῳ μορίῳ ἔστω ἡ ἐνέργεια ἀφωρισμένη θατέρῳ δὲ τὸ δυνατόν» (IX 6, 1048a30-b1).

dagoen izatetik (oraindik ez den hartatik) *egintzan* dagoen izaterako (jadanik den hartarako) prozesuak baizik. Bestalde, kontzeptu pare hori errealitateen egitura hilemorfikoari ere aplika dakioke. Izan ere, materia, zehaztu ga-bea den eta zehazteko forma bat behar duen aldetik, potentzia da; eta forma, materia zehazten duen aldetik, egintza da.

Izatearen bi zentzuen artean, zeinek dauka lehentasuna? Potentziak ala egintzak? IX 8 atalean Aristotelesen egintzak potentziaren aurrean duen lehentasuna azpimarratzen du. Aristotelesen ustez egintza potentziaren aurrekoa da, eta lehentasun hura hiru zentzutan du: kontzeptuari, denborari eta substantziari dagokienez. Aipaturiko atalean horrela azaltzen du filosofoak:

... agerian dago egintza potentziaren aurrekoa dela. (...) Argi dago kontzeptuari dagokionez aurrekoa dela, lehenengoz potentzian dagoena egintzaratu ahal izateko baita potentzian; adibidez, eraikitze potentzian dago eraikitze gai dena, eta ikusteko potentzian dago ikusteko gai dena, eta ikusia izateko potentzian dago ikusia izateko gai dena. Beraz, egintzaren kontzeptua eta ezagutza potentziarenak baino lehenagoak dira nahitaez. Hala ere, denborari dagokionez, egintza aurrekoa da, baina espezifikoki, ez aritmetikoki. Zeren materia, hazia eta ikusteko gai dena —potentzian gizaki bat, garia eta ikusteko gai dena direnak, alegia, baina egintzan oraindik ez— jadanik egintzan diren gizaki jakin horren, gariaren eta ikuslearen aurrekoak dira denboran; baina, aldi berean, potentzia horien aurrekoak dira egintzan diren beste gauza batzuk, zeinetatik potentzian sortu diren, egintzan dagoena beti sortzen baita, potentzia izanik, egintzan dagoen zerbaitetik. (...). Baina substantziari dagokionez ere bai; lehenengoz, sorrerari dagokionez ondorengoa dena espezieari —hau da, substantziari— dagokionez aurrekoa delako (adibidez, gizona haurraren aurrekoa da, eta gizakia espermaren aurrekoa da, batak forma espezifikoa duelako, eta besteak ez) (...); bestalde, egintza helburu bat da, eta potentzia egintzagatik da. (IX 8, 1049b5-1050a9)¹¹

¹¹ «φανερὸν ὅτι πρότερον ἐνέργεια δυνάμεώς ἐστίν (...) τῷ λόγῳ μὲν οὖν ὅτι προτέρα, δῆλον τῷ γὰρ ἐνδέχεσθαι ἐνεργῆσαι δυνατόν ἐστὶ τὸ πρῶτως δυνατόν, οἷον λέγω οἰκοδομικὸν τὸ δυνάμενον οἰκοδομεῖν, καὶ ὀρατικὸν τὸ ὄρᾶν, καὶ ὀρατὸν τὸ δυνατόν ὀρᾶσθαι: ὁ δ' αὐτὸς λόγος καὶ ἐπὶ τῶν ἄλλων, ὥστ' ἀνάγκη τὸν λόγον προϋπάρχειν καὶ τὴν γνῶσιν τῆς γνώσεως. τῷ δὲ χρόνῳ πρότερον ὤδε: τὸ τῷ εἶδει τὸ αὐτὸ ἐνεργοῦν πρότερον, ἀριθμῷ δ' οὐ. λέγω δὲ τοῦτο ὅτι τοῦδε μὲν τοῦ ἀνθρώπου τοῦ ἤδη ὄντος κατ' ἐνέργειαν καὶ τοῦσίτου καὶ τοῦ ὄρᾶντος πρότερον τῷ χρόνῳ ἢ ὕλη καὶ τὸ σπέρμα καὶ τὸ ὀρατικόν, ἃ δυνάμει μὲν ἐστὶν ἄνθρωπος καὶ σῖτος καὶ ὄρῶν, ἐνεργείᾳ δ' οὐπω: ἀλλὰ τούτων πρότερα τῷ χρόνῳ ἕτερα ὄντα ἐνεργείᾳ ἐξ ὧν ταῦτα ἐγένετο: αἰεὶ γὰρ ἐκτοῦ δυνάμει ὄντος γίνεταί τὸ ἐνεργείᾳ ὄν ὑπὸ ἐνεργείᾳ ὄντος (...). ἀλλὰ μὴν καὶ οὐσία γε, πρῶτον μὲν ὅτι τὰ τῇ γενέσει ὕστερα τῷ εἶδει καὶ τῇ οὐσίᾳ πρότερα οἷον ἀνὴρ παιδὸς καὶ ἄνθρωπος σπέρματος: τὸ μὲν γὰρ ἤδη ἔχει τὸ εἶδος τὸ δ' οὐ (...) ἀρχὴ γὰρ τὸ οὐ ἔνεκα, τοῦ τέλους δὲ ἔνεκα ἢ γενέσις» (IX 8, 1049b5-1050a9). Egintzaren lehentasunari buruz, cf. IX 8, *passim*.

Aristotelesen sistema ontologikoari dagokionez, IX. liburuaren 8. atalak funtsezko ondorioak ditu, egintzaren lehentasunak egintza hutsa den izaki baten existentziaren beharra ekartzen baitu. Motor geldia aztertzen dugunean, berriro hitz egin beharko dugu potentziari eta egintza-doktrinari buruz.

Azkenik, Aristotelesen sailkapenean, izatearen zentzu lehena *berezko* izatearena da; eta badenaren eta substantziaren arteko loturari buruzko ikerketari begira hura da, hain zuzen, sakonkien azertu behar den izatearen zentzua. Gainerako zentzuetan gertatzen den moduan, berezko izatearen zentzuak ez du adiera bakarra. Berezko izatearen zentzuan *predikazioaren irudiek adierazitako gauza guztiak* sartzen ditu Aristotelesek, hau da, badenaren kategoria guztiak, eta ez bakarrik substantzia¹². Hori dela eta, kontuan hartu behar dugu Aristotelesek zerrendaturiko kategoriek ez dituztela subjektu jakin bati dagozkion eta gertakari-proposizioetan islatu daitezkeen gauzatze zehatzak adierazten (adibidez, Sokrates baxua da, Sokrates agoran dago edo Sokrates eserita dago), izateko modu murriztezinak adierazten dituzten irudiak baizik. Horregatik, kategoria guztiak —eta ez bakarrik substantzia— dira berezko izateko moduak. Aristotelesek zerrenda bat baino gehiago egin zuen; ezagunena *Kategoriak* obran agertzen da: substantzia (*ousia*), kantitatea (*poson*), tasuna (*poion*), erlazioa (*pros ti*), lekua (*pou*), denbora (*pote*), egoera (*keisthai*), edukiera (*echein*), ekintza (*poiein*) eta jasatea (*paschein*)¹³.

¹² Cf. V 7, 1017a23. Berezko izatearen zentzua ez dagokio soilik substantziari, predikazioaren irudi guztiei baizik, irudiak, euren artean murriztezinak diren aldetik, berezko izatearen zentzuak baitira. Hori dela eta, argigarria da Calvoren iruzkina (1994: 224, 31. oh.): «Lehenengo begirada batean (...) Aristotelesek *izan akzidental*a azertu ondoren, *ousia* soilik aipatuko duela pentsa liteke; substantzia, alegia, *berez* den hura delakoan. Hala ere, Aristotelesek baieztatzen du kategoriek adierazitako gauza *guztiak* direla berezkoak, eta, beraz, akzidenteen kategoriei dagozkien esanahiak ere bai (...). Formula honek [*berezkok*] ez du subjektuaren eta predikatuaren arteko erlazioa adierazten (...), baizik eta *izan litezkeen predikatu desberdinen eta izatearen arteko erlazioa*: edozein kategoriarik dagozkien determinazioak berezkoak dira, hau da, halakoak diren aldetik, eta *izateko modu desberdinak* adierazten dituzte berehala, subjektuarekin, aldi berean, mantentzen duten harremana edozein izanda ere.» («A primera vista (...) cabría esperar que Aristóteles, tras ocuparse de *lo ente accidentalmente*, se refiera ahora exclusivamente a la *ousia*, a la substancia, como aquello que es *por sí*. Sin embargo, Aristóteles afirma que son por sí *todas* las cosas significadas por las categorías y, por lo tanto, también las significaciones correspondientes a las categorías de los accidentes. (...). Esta fórmula [*por sí*] no se refiere a la relación entre sujeto y predicado (...), sino a *la relación entre los distintos predicados posibles y el ser*: las determinaciones correspondientes a cualquier categoría son por sí, es decir, en cuanto tales, y de modo inmediato *expresan distintos modos de ser*, sea cual sea la relación que, a su vez, guarden con el sujeto.»). Interpretazio horren arabera, kategoriek izaera linguistiko, logiko eta semantikoa ez ezik, izaera ontologikoa ere badute, berezko izatearen zentzu murriztezinak adierazten dituzten aldetik. Azalpen labur eta baliagarria aurkitzen da Kung (1986: 3-18) lanean.

¹³ Cf. *Kat.* IV. Aristotelesek beste bi kategoria-zerrenda aurkezten ditu *Top.* I, 103b23 eta *Phys.* V 1, 225b5-9 pasarteetan; lehenengoak *Kat.* IVko lehenengo zortzi kategoriak jasotzen ditu; biga-

Beraz, goian esan bezala, *izan (einai)*, *da (esti)* eta *badena (on)* hitzak ulertzeko lau zentzu daude, eta zentzu bakoitzaren barruan, aldi berean, adiera anitz daude. Bestalde, izatearen zentzu horiek guztiak murriztezinak dira. Egoera horrek arazo bat planteatzen digu: izatearen zentzuen aniztasuna murrizteztina bada, nola eraiki daiteke badenaren inguruko zientzia bat, kontuan hartuta zientzia, beti, genero baten ingurukoa dela eta badena ez dela genero bat, aniztasun bat baizik? Atalaren hasieran ikusi dugunez, arazo horri Aristotelesekin emandako erantzuna izatearen zentzuen aniztasuna printzipio bakar batera zuzentzea da. Printzipio hura substantzia (*ousia*) da. Azken erreferentzia horren existentziak, alde batetik, substantziaren lehentasuna eta, beste aldetik, badenari buruzko zientziaren garapena justifikatzen ditu. Baina nondik datorkio substantziari beste gainerako kategorien gaineko lehentasuna?

1.2. Substantziaren lehentasun ontologikoa

Substantzia eta gainerako kategoriak bereizteko Aristotelesekin ezarritako lehenengo irizpidea menpekotasuna da. Goian aipaturiko IV 1, 1003b 5-10 pasartean adierazita dago substantziarekiko menpekotasuna zein zentzutan uler daitekeen. Bestalde, VII 3n Aristotelesekin substantziaren eta menpekotasunaren arteko lotura argitzen du: «Esana dago, labur, substantzia zer den: ez subjektu batez esaten dena, baizik hura zeinaz gainerako guztia esaten den» (VII 3, 1029a8).

Substantzia da beste subjektu batez baieztatzen ez dena edo beste subjektu batean ez dena. Aitzitik, baieztatu daitekeen guztia substantziari dagokio eta haren inguruan existitzen da. Izateko modu guztiak dira eta esaten dira substantziari dagokionez. Substantziarekiko menpekotasunetik abiatuta, Aristotelesekin substantziaren lehentasunaren zentzuak ikertzen ditu. Zentzurik garrantzitsuenak VII 1 atalean daude adierazita:

... lehena zentzu askotan esaten da, eta zentzu guztietan lehena substantzia da, bai nozioari (*logoi*), bai ezagutzari (*gnosei*), bai denborari (*chronoi*) dagokionez. Izan ere, predikatzen diren beste gainerako gauza guztien artean, bat bera ere ez da banangarria (*choriston*); substantzia da bakarra. Eta nozioari dagokionez ere, substantzia da lehena (beharrezkoa baita gauza bakoitzaren nozioan substantziarena ematea); azken batean, gauza bakoitza ezagutzen dugula uste dugu, bereziki, gizakia edo sua zer den ezagutzen dugunean, eta ez nolakoa edo zenbatekoa edo nongoa den ezagutzen dugunean. (VII 1, 1028a31-b1)¹⁴

rranean, *ousia* kategoriaren ordean *ti esti* agertzen da. Aristotelesen sistema kategorialari buruz, ik. Trendelenburg (1994).

¹⁴ «πολλαχῶς μὲν οὖν λέγεται τὸ πρῶτον: ὁμοῦς δὲ πάντως ἡ οὐσία πρῶτον, καὶ λόγῳ καὶ γνώσει καὶ χρόνῳ. τῶν μὲν γὰρ ἄλλων κατηγορημάτων οὐθὲν χωριστόν, αὕτη δὲ μόνη: καὶ τῷ λόγῳ δὲ τοῦτο πρῶτον ἀνάγκη γὰρ ἐν τῷ ἑκάστου λόγῳ τὸν τῆς οὐσίας ἐνυπάρχειν. καὶ εἶδέναι δὲ τότε οἰόμεθα ἕκαστον

Substantziaren lehentasun ontologikoa eta lehentasun linguistikoa bat datoz; zeren esaten den guztia substantziaz esan daiteke substantzia banandurik existi daitekeelako, substantzia, substantzia ez diren beste gainerako izatearen zentzu guztiekiko, buruaskia, burujabea baita. Substantziak bananduak eta buruaskiak dira; substantziak ez direnak, berriz, substantzia baten menpe daude. Eta substantziak ez direnek, ezinbestez, subjektu den substantzia baten barnean existitu behar dute; substantzia, aldiz, subjektua den aldetik, bere baitan existitzen da. Ezberdintasun horrek batzuen eta besteen arteko oinarrizko asimetria ontologikoa adierazten du. Hori dela eta, substantziak, alde ontologikoari dagokionez, oinarrizko errealitateak direla, eta lehentasun ontologikoak ere denborari dagokionez lehentasuna dakarrela esan daiteke¹⁵.

Definizioari dagokionez, substantziaren lehentasuna azaldu daiteke, substantzia ez den definizioak, bere barnean, substantzia baten definizioa hartzen baitu derrigorrean. Aitzitik, edozein substantziaren definizioak ez du zertan hartu bere barnean substantzia ez denaren definizioa. Substantziaren eta definizioaren artean ezartzen den lotura ulertzeko, gogoratu behar da substantziari buruzko galdera definizioa emanez erantzuten dela; beraz, substantzia baten definizioak substantzia hura zer den argitzen digu; edo, bestela esanda, definizioa substantzia adierazten duen predikatua da. Izan ere, Aristotelesentzat definizioa ez da estatutu linguistikoa besterik ez duen esakune bat, baizik eta izatearen kausa adierazten duen eta, ondorioz, estatutu ontologikoa duen esakune bat. Hortaz, definizioa, zentzu nagusian, substantziarena izango da, eta substantziak ez direnek bigarren mailako zentzuan izango dute definizioa; ez substantzia baten menpe daudelako, substantzien osotasunik ez dutelako baizik. Adibidez, *hiru metroko* izate ez-substantzialaren definizioa, substantziaren arabera aldatzen ez bada ere (hiru metroko luzera luzera berbera baita beti), substantzia batean eman behar da derrigorrean. Aristotelesen beraren adibidea jartzeko, *hiru metroko* baino, *hiru metro substantzia batean* da definitzen dena.

μάλιστα, ὅταν τί ἐστὶν ὁ ἄνθρωπος γινώμεν ἢ τὸ πῦρ, μᾶλλον ἢ τὸ ποιὸν ἢ τὸ ποσὸν ἢ τὸ πού» (VII 1, 1028a31-b1).

¹⁵ Lehentasun honi dagokionez, argigarria da Rossen iruzkina (1997: 160-1): «Alexandrori jarraituz, hobe da pentsatzea hurrengo hitzek (33 eta ondorengo lerroetakoek) *chronoi* hitzaren esanahia azaltzen dutela; alegia, esan daiteke gauza bat beste gauzak existitu gabe existi badaiteteke eta, aldi berean, gauza hori existitu gabe besteak existitu ezin badaitezke, orduan gauza hura besteak baino lehenago existitzen dela. Alexandro seguruenik zuzen dago 34-36 lerroek *logoi* eta 36-b2 lerroek *gnosei* adierazten dutela uste duenean» («It seems best to suppose with Alexander that next words (ll. 33 f) are meant to explain *chronoi*. That which can exist without other things while they cannot exist without it may naturally be said to exist before other thing. (...). Alexander is probably right in supposing that ll. 34-36 refers to *logoi* and ll. 36-b2 to *gnosei*.»).

Azkenik, ezagutzari dagokionez, substantziaren lehentasuna definizioari dagokion lehentasunaren ondorio bat da. Garrantzitsuagoa da substantzia ezagutzea substantziaren ezaugarriak ezagutzea baino. Aldi berean, tasun, kantitate edo erlazio bat definizioaren bidez ezagutzen dugu zentzu osoan, baina definizioa, lehen esan bezala, substantziarena da zentzu nagusian.

Argi dago, beraz, substantziaren hiru lehentasun-moduak elkarri loturik daudela. Izan ere, ezagutzari dagokion substantziaren lehentasuna definizioari dagokion lehentasunaren ondorioa da, eta azken hura, aldi berean, substantziaren oinarritzko lehentasun ontologikoaren ondorioa da. Eta, orain, berriro planteatu dezakegu atalaren hasieran planteatu dugun galdera: badenari buruzko ezagutzari begira, justifikatzen al du substantziaren lehentasunak substantziari buruzko ikerketa? Aristotelesek argi erantzuten dio galdera horri:

Alabaina, zientziari, kasu guztietan lehenengoa dena dagokio nagusiki, gainerakoien sostengu den hura, hain zuzen, eta zeinarengatik besteek izena jasotzen duten. Beraz, hura substantzia bada, filosofoak substantziaren printzipioak eta kausak ezagutu beharko ditu. (IV 2, 1003b16-19)¹⁶

Hala, Aristotelesen ustez, substantziaren printzipioak eta kausak, aldi berean, substantzia ez direnen printzipioak eta kausak dira; eta substantziaren printzipioak eta kausak ikertzen ditugunean, substantzia ez direnen printzipioak eta kausak ere ikertzen ditugu. Hortaz, amaitzeko, badenaren inguruko zientziaren galdera nagusia hau izango da: *zein dira substantziaren printzipioak eta kausak?*

2. Substantzia materia, konposatu eta forma gisa

Izateko modu lehena substantzia dela onartuta, hurrengo pausuan Aristotelesek *substantzia* izaera zein errealiteri egokitzen zaion aztertzeari ekiten dio. Ikerketa VII. eta VIII. liburuetan garatzen da gehienbat¹⁷. Aristotelesek ez ditu substantziaren ezaugarriak inongo tokitan sistematikoki zerrendatzen; bestalde, *substantzia* izenaz izendatutako errealitateak bat baino gehiago dira. Dena dela, ikerketa bete ondoren, ondorio batera iristen

¹⁶ «πανταχοῦ δὲ κυρίως τοῦ πρώτου ἢ ἐπιστήμη, καὶ ἐξ οὗ τὰ ἄλλα ἤρτηται, καὶ δι' ὃ λέγονται. εἰ οὖν τοῦτ' ἐστὶν ἡ οὐσία, τῶν οὐσιῶν ἂν δεοί τὰς ἀρχὰς καὶ τὰς αἰτίας ἔχειν τὸν φιλόσοφον» (IV 2, 1003b16-19).

¹⁷ *Metafisikaren* Erdiko liburuei buruzko iruzkinak Kirwan (1971), Grayeff (1974), Furth (1986), Cassin & Nancy (1989) eta Bostocken (1994) lanak ditugu. Euskaraz, Aguirreraren (2008) liburua dugu.

da: substantzia, zentzu nagusian, formari edo esentziari dagokio. Ikus dezagun filosofoaren ibilbidea.

2.1. Substantzia ulertzeko moduak

VII 3 atalean Aristotelesek substantzia ulertzeko moduak aipatzen ditu:

Substantzia, gutxienez, lau zentzutan esaten da bereziki, zentzu gehiagotan ez bada. Izan ere, gauza bakoitzaren substantzia *esentzia* (*to ti en einai*), *unibertsala* (*to katholou*) eta *generoa* (*to genos*) omen dira, eta, laugarren zentzuan, *subjektua* (*to hypokeimenon*). (VII 3, 1028b33-36)

Ondoren, Aristotelesek subjektua lau modutan aukeratzen du, subjektuak substantziaren ezaugarri lehena betetzen baitu:

Subjektua da hura zeinaz gainerakoak esaten diren, hura beste batez inoiz esaten ez delarik. Horregatik zehaztu behar da, lehenengoz, haren izaera, substantzia, antza denez, subjektu lehena (*to hypokeimenon proton*) baita bereziki. *Subjektu* esaten zaio, lehenengo zentzu batean, *materiari* (*he hyle*); beste zentzu batean, *formari* (*he morphe*), eta, hirugarren zentzuan, bi haietaz konposaturikoari (*to synolon*). (VII 3, 1028b36-39)¹⁸

Substantzia sentigarriari buruzko ikerketatik atera gabe, Aristotelesek lau aukera planteatzen ditu eta lau aukera horietatik, *substantzia* izena emateko, subjektua aukeratzen du. Aristotelesen aukera bat dator *Metafisika*-ren beste hainbat tokitan esandakoarekin. Zeren substantziaren lehenengo ezaugarria beste inolako errealitatearen predikatua ez izatekoa da; aitzitik, dena predikatzen da substantziaz, eta badirudi ezaugarri hura subjektuak betetzen duela. Hala ere, irizpide horren arabera hiru dira subjektutzat har litezkeen errealitateak; alegia, materia, forma eta bi haietaz osaturiko konposatua. Hiru haietan, zein da substantziaren ezaugarriak modurik egokien betetzen dituen? Galdera horri erantzuna eman ahal izateko *Metafisika*-n zehar substantziari buruz esandakoa aztertu behar da. Aristotelesek substantziari ezarritako ezaugarriak kontuan hartuz gero, materia bigarren zentzu batean har daiteke substantziatzat. Izan ere, V 8 atalean (substantziari buruzko hiztegiaren, hain zuzen) substantziaren zenbait ezaugarri zehazten ditu: a) subjektu batez esaten ez dena; b) subjektu batez predikatzen ez diren gauzetan izatearen kausa immanentea dena; c) esentzia zeinaren esakunea definizioa den.

¹⁸ «τὸ δ' ὑποκειμένον ἐστὶ καθ' οὗ τὰ ἄλλα λέγεται, ἐκεῖνο δὲ αὐτὸ μηκέτι κατ' ἄλλου. διὸ πρῶτον περὶ τούτου διοριστέον. μάλιστα γὰρ δοκεῖ εἶναι οὐσία τὸ ὑποκειμένον πρῶτον. τοιοῦτον δὲ τρόπον μὲν τινα ἢ ὕλη λέγεται, ἄλλον δὲ τρόπον ἢ μορφή, τρίτον δὲ τὸ ἐκ τούτων» (VII 3, 1028b36-39).

Eta berehala laburbiltzen du:

Gertatzen da substantzia bi zentzutan esaten dela: batetik, 1) azkenengo subjektua, beste ezertaz esaten ez dena; bestetik, 2) *zehaztutako zerbait* (*tode ti*) delarik ere 3) *banandu daitekeena* (*choriston*). Eta horrelakoa da gauza bakoitzaren konfigurazioa, forma (V 8, 1017b22-26)¹⁹.

Bi testuen edukiak batera hartzen baditugu, ikusten dugu 1)ek eta a)k *materia lehena* aipatzen dutela, eta b)k, c)k, 2)k eta 3)k *forma*, hau da, gauzaren egitura formala. Ikusi dugunez, pasarte horietan esandakoa modu zehatzagoan garaturik dago VII 3 atalean. Bestalde, zenbait tokitan, zerrendaturiko ezaugarriei beste bi gehiago gaineratzen dizkie filosofoak; alegia, 4) *batasun bat osatzea* (VII 2 eta VIII 6 ataletan) eta 5) *egintzan existitzea* (VIII 2 atalean). Jarraitu aurretik, substantziaren ezaugarriei buruz azalpen pare bat egin behar da: Aristotelesek *zehaztutako zerbait* (*tode ti*) aipatzen duenean, erreferentzia ez da materiaz eta formaz konposaturiko errealitate sentigarria (*synolon*), errealitate hura egituratzen duen printzipioa baizik; bestalde, substantzia *banangarria* dela baieztatzen duenean, agian zehaztu beharko luke *pensamenduaz banangarria* (*to logoi choriston*) dela, hau da, pensamenduaren bidez banangarria dela. Ikusiko dugunez, bi kasutan erreferentzia forma da²⁰.

Substantziari ezarritako ezaugarri guztiak kontuan hartzen baditugu, materiak lehenengo ezaugarria besterik ez duela betetzen ikusten dugu. Izan ere, materia ez da beste ezertaz predikatzen, baina ez da existitzen ez banan-

¹⁹ «συμβαίνει δὴ κατὰ δύο τρόπους τὴν οὐσίαν λέγεσθαι, τὸ θ' ὑποκείμενον ἔσχατον, ὃ μηκέτι κατ' ἄλλου λέγεται, καὶ ὃ ἂν τότε τι ὄν καὶ χωριστὸν ἦ. τοιοῦτον δὲ ἐκάστου ἡ μορφή καὶ τὸ εἶδος» (V 8, 1017b22-26).

²⁰ Cf. VI 1, 1042a29 ss. Argigarria da Realeren (1995: 235-6,10. oh.) iruzkina: «Agerikoa da Aristotelesek esplizituki murrizten duela *tode tia eidosera*. Normalean pentsatzen dena ez bezala, *tode ti*ak ez du *banakako empirikoa* adierazten, batzuek itzultzen duten bezala; aitzitik, adierazpenak adierazten duena bai norbanakoari edo zehazturiko zehatzari, baita formari ere aplikatu daiekie, eta, hain zuzen ere, *zehaztasun esentziala eta formala* adierazten du, eta, ondorioz, formari dagokionez *zehazturiko zerbait izatea*. Norbanakoari dagokionez, horrek zehazturiko zerbait adieraziko du, bere formaren zigilua duen materia bezala, guztiz zehaztua dena; *formari* dagokionez, horrek zerbait zehazturiko-zehaztailea adieraziko du (...). *Formari* dagokionez, agerikoa da *choristóna* (*bereizgarria*) *choristón toi lógoi* zentzuan ulertu behar dela, hau da, *bereizgarria pensamenduarekin edo pensamenduaren bidez*.» («Si noti che, qui, Arist. esplicitamente riduce il *tode ti* all'*eidos*. Contrariamente a quanto comunemente si ritiene, *tode ti* non significa affatto l'*individuo empirico*, il questo qui come qualcuno traduce; l'espressione indica, invece, un carattere che può applicarsi sia all'*individuo* o al concreto determinato, sia alla forma, e significa, precisamente, la *determinatezza essenziale e formale*, e, di conseguenza, quindi l'*essere un qualcosa di formalmente determinato*. Riferito all'*individuo*, esso significherà qualcosa di determinato, come una materia che ha il suggello della sua forma, dalla quale è pienamente determinata; riferito alla *forma*, esso significherà un qualcosa di determinato-determinante (...). Per quanto concerne il *choristón* (separabile) riferito alla forma, è chiaro che si deve intendere soprattutto nel senso di *choristón toi lógoi*, vale a dire *separabile col o per il pensiero*.»)

durik, ez egintzan, eta ez du osatzen, ez batasun bat, ez zehaztutako zerbait. Aitzitik, materia zehaztu gabeko potentzia hutsa da, printzipio egile baten eraginik gabe existitu ezin daitekeena. Beraz, Aristotelesek materia ez badu substantzia ulertzeko lehenengo modutzat hartzen, eta onartzen badu unibertsala eta generoa ezin izan daitezkeela substantzia (subjektu askoz predikatzen baitira, VII 13n esplizituki baieztatzen duen moduan), substantziaren inguruko galderari emandako erantzuna V 8 eta VII 3 ataletan *forma* eta *esentzia* izenekin aipatzen dena da. Zeren substantzia sentigarriaren printzipio egituratzaile, egile, banatzaile eta bateratzailea *orma* edo definizioan zehazturiko *esentzia* da. Hortaz, tradizio presokratikoaren kontra, Aristotelesentzat substantzia ulertzeko modu lehena forma da, materia eta konposatua baino neurri handiagoan. Planteamendu hori ulertzeko, kontuan hartu behar da Aristotelesen azken helburua materiari gabeko forma hutsen existentzia (motor geldia eta mundu azpilargikoaren gainerako motorren existentzia, hain zuzen) dela eta substantzia sentigarrien inguruko eztabaida substantzia ez-sentigarri buruzko ikerketaren sarrera besterik ez dela; baina, horretaz gain, ontologia aristotelikoan badaude ontologia platonikoaren eragina adierazten duten bi alderdi: 1) forma (materiaz eta formaz konposaturiko) errealitate sentigarriaren osagai definigarria da; 2) forma eta azken kausa berdintzat hartzen dira. Filosofoaren bi alderdiok garatuko ditugu.

2.2. Formaren eta esentziaren lehentasuna

2.2.1. Definizioaren eta esentziaren arteko lotura Aristotelesek ezarrita dago, *Topikoetan*: «Definizioa esentzia adierazten duen esakunea da» (I, 102a1). Era berean azaltzen du *Metafisikaren* VII 4n: «... gauza bakoitzaren esentziaren definizioa definitu beharrekoa esan gabe hura bera adierazten duen esakunea da» (1029b20-21). Eta ondoren: «esentzia izango dute gauza horiek zeinen esakunea definizioa den» (1030a6); eta «definizioa —erabatekoa eta nagusia— eta esentzia substantziei dagozkie» (1030b5). Bestalde, definizioa «batasuna duenarena da» (1030b9), eta batasuna, zentzu lehen eta nagusian, substantziarena da. VII 4n ezarritako definizioaren, substantziaren eta esentziaren arteko lotura VII 5en berretsiko du: «Argi dago, beraz, definizioa esentziaren esakunea dela, eta esentzia substantzietan bakarrik edo substantzietan neurri gorenean izaten dela, nagusiki eta erabat» (VII 5, 1031a12-14).

VII 6n Aristotelesek, beste pauso bat emanez, esentzia eta substantzia berdintzat hartuko ditu: «Izan ere, gauza banako (*hekaston*) bakoitza ez dirudi bere substantziaz beste denik, eta esentzia gauza banako bakoitzaren substantzia dela esaten da» (VII 6, 1031a17-18). Gauza bakoitza bere substantzia bada eta substantzia eta esentzia berdintzat hartzen badira, orduan gauza banako bakoitza bere esentzia izango da. Aristotelesek azaltzen due-

nez, gauza banakoa eta haren esentzia gauza bat eta bera badira, gauza banakoa ezagutzea haren esentzia ezagutzea besterik ez da izango, «gauza bat eta bera ez dira esentzia eta substantzia bakarrik, haien esakunea ere bat eta bera da» (1031b33-34). Errealitate sentigarriari dagokionez, beraz, errealitatearen esentzia eta errealitatea bera identifikatu egiten dira, eta bata eta bestea definizioan adierazten dira²¹.

Aristotelesek definizioaren eta esentziaren artean ezarritako loturaren garrantzia definizioa izatearen kausei eta printzipioei buruzkoa izateari ondo-ondoratzen da. Izan ere, definizioak errealitatearen egitura ontologikoa adierazten du, eta ez haren esanahia edo aspektu gramatikala soilik. Definizioaren, esentziaren eta substantziaren arteko berdintasunetik abiatuta, litekeena da materiaz eta formaz konposaturiko errealitate sentigarria zerbait egituratua, zehaztua, banangarria, bateratua eta egintzan izatea. Horren guztiaren zeregina esentziari dagokio. Horrenbestez, esentzia kausa eta printzipiotzat hartu behar da, eta egitura hilemorfikoaren formarekin identifikatzen da.

Azkenik, definizioaren eta, bestalde, materiaren eta materiaz eta formaz konposaturikoaren arteko loturari dagokionez, Aristotelesen iritzia VII 10en adierazita dago:

... konposaturikoaren definizioa badago zentzu batean, baina beste zentzu batean ez: materiarekin batera hartuz gero ez dago (zehaztugabea baita), baina substantzia lehenarena badago; adibidez, gizakiaren ari-maren esakunea da, substantzia bere baitako forma baita, eta forma eta materia substantzia osatua (*synolon*) deiturikoaren osagaiak dira (VII 10, 1037a26-30)²².

Beraz, errealitate osatuaren batasuna definizioak zehazturiko esentziari dagokio, materiak, zehaztugabea eta potentzian den aldetik, ez baitu batasun bat osatzen eta, ondorioz, ez du definiziorik.

2.2.2. Errealitate sentigarrian, egitura hilemorfikoaren forma xedearekin, alegia azken kausarekin, identifikatzen da. *Fisikaren* II 1 atalean Aristotelesek natura (edo, zehatzago esanda, *mugimenduaren eta gelditasunaren bareneko printzipioa*) ulertzeko bi modu bereizten ditu, hau da, materia lehen gisa eta definizioaren araberrako forma edo espezie gisa (193a28-30). Filosofoa-

²¹ Definizioari dagokionez, zehatza eta zuzena da Calvoren (1994: 289-80, 20. oh.) iruzkina: «Esentzia (*to ti en einai*), beraz, *definizioan adierazitakoa* da; substantzia bat aipatzen duen izen orok (adibidez, «gizon»ak) esentzia baten batasuna adierazten du, aldi berean definizioan azaldua edo zabaldua dena.» («La esencia (*to ti en einai*) es, pues, *lo expresado en la definición*; todo nombre que refiere una substancia (por ejemplo, «hombre») *significa* la unidad de una esencia que, a su vez, es explicada o des-plegada en la definición.»)

²² «... τῆς συνόλου, ταύτης δὲ ἔστι πως λόγος καὶ οὐκ ἔστιν. μετὰ μὲν γὰρ τῆς ὅλης οὐκ ἔστιν, ἀόριστον γάρ, κατὰ τὴν πρώτην δ' οὐσίαν ἔστιν, οἷον ἀνθρώπου ὁ τῆς ψυχῆς λόγος. ἢ γὰρ οὐσία ἐστὶ τὸ εἶδος τὸ ἐνόν, ἐξ οὗ καὶ τῆς ὅλης ἢ συνόλου λέγεται οὐσία» (VII 10, 1037a26-30).

ren ustez, naturaren ikertzaileak bata eta bestea ikertu behar ditu. Hala ere, lehentasuna formari dagokio, eta formaren lehentasuna arrazoitzeko hiru arrazoi ematen ditu: 1) natura, nagusiki, egintza betea (*entelecheia*) delako; 2) substantzia oro formari dagokionez zehaztua den beste substantzia batek sortua delako; 3) sorrera oro formara zuzentzen den prozesu bat delako (193b21-27). Hortaz, Aristotelesek emandako formaren lehentasunaren aldeko argudioek agerian jartzen dute formaren eta azken kausaren arteko lotura estua dela. Aristotelesen naturaren inguruko ikuspegia guztiz teleologikoa dela kontuan hartuta, formaren eta xedearen arteko lotura esanguratsua da, forma naturaren xedearekin identifikaturik gelditzen baita. Naturaren egitura teleologikoa leku askotan aztertzen du, ikerketa fisiko eta biologikoe-tan gehienbat. Horrela, *Phys.* II 9n hau irakurtzen dugu:

Beraz, agerian dago errealitate naturaletan beharrezkoa materia deituri-koa eta haren mugimenduak direla. Fisikariari bi kausak ezartzea da-
gokio, baina bereziki xedea, hura materiaren kausa delako, eta ez materia
xedearena. Xedea (*to telos*) helburu den hori (*to hou heneka*) da, baita de-
finizioaren eta kontzeptuaren printzipioa ere, errealitate artifizialetan be-
zala. (II 9, 200a31-35)²³

Naturaren inguruko ikerketan, lehentasuna xedeari edo helburu den ho-
rri (hau da, azken kausari) ematen dio Aristotelesek, bere obraren zenbait
pasartetan formarekin identifikatzen duenari. Adibidez, *Phys.* II 7n horrela
adierazten du:

Kausak lau dira, alegia, materia (...), forma (...), mugimenduarena
eta xedea. Azken hirurak, sarritan, kausa batera murrizten dira, esentzia
eta xedea gauza bera baitira, eta mugimenduaren sorburua dena ere, es-
pezieari dagokionez, gauza bera da, gizaki batek beste gizaki bat sortzen
baitu. (II 7, 198a25-27)²⁴

Eta ondoren:

²³ «φανερὸν δὴ ὅτι τὸ ἀναγκαῖον ἐν τοῖς φυσικοῖς τὸ ὡς ὕλη λεγόμενον καὶ αἱ κινήσεις αἱ ταύτης. καὶ ἄμφω μὲν τῷ φυσικῷ λεκτέαι αἱ αἰτίαι, μᾶλλον δὲ ἢ τίνος ἕνεκα· αἴτιον γὰρ τοῦτο τῆς ὕλης, ἀλλ' οὐχ αὐτῆ τοῦ τέλους· καὶ τὸ τέλος τὸ οὐ ἕνεκα, καὶ ἡ ἀρχὴ ἀπὸ τοῦ ὀρισμοῦ καὶ τοῦ λόγου, ὡσπερ ἐν τοῖς κατὰ τέχνην» (II 9, 200a31-35).

²⁴ «ἐπεὶ δ' αἱ αἰτίαι τέτταρες, περὶ πασῶν τοῦ φυσικοῦ εἰδέναι, καὶ εἰς πάσας ἀνάγων τὸ διὰ τί ἀποδώσει φυσικῶς, τὴν ὕλην, τὸ εἶδος, τὸ κίνησαν, τὸ οὐ ἕνεκα. ἔρχεται δὲ τὰ τρία εἰς [τὸ] ἐν πολλακίς· τὸ μὲν γὰρ τί ἐστὶ καὶ τὸ οὐ ἕνεκα ἐν ἐστὶ, τὸ δ' ὅθεν ἡ κίνησις πρῶτον τῷ εἶδει ταῦτο τούτοις· ἄνθρωπος γὰρ ἄνθρωπον γεννᾷ» (II 7, 198a25-27).

... natura materia eta forma gisa uler daitekeenez, eta forma xedea de-
nez, gainerako guztia xedearen menpe dago; forma, berriz, kausa izango
da, helburu den hori, hain zuzen. (II 7, 199a31-33)²⁵

Ikerketa fisiko eta biologikoetan ezarritako formaren eta xedearen arteko berdintasuna *Metafisikan* ere adierazten du: «... natura materia lehena (*prote hyle*) (...) eta substantzia, hau da, forma (*kai to eidos kai to he ousia*) da. Eta forma, aldi berean, sorreraren xedea (*to telos tes geneseos*) da» (V 4, 1015a7-11)²⁶.

Errealitate baten forma definizioan adierazitako errealitate horren esentziarekin bada, eta xedea edo helburu den hori (=azken kausa) bada hura norantz gauza oro eta prozesu oro zuzentzen den, nola identifikatzen ditu Aristotelesek bi kontzeptu haiek —forma eta xedea, hain zuzen— izaki naturaletan? Aristotelesen erantzuna hau da: izaki naturaletan sorreraren xedea haien formaren gauzatze betea da. Izaki naturaletan, prozesu betea materialian gauzatzen da. Egitura teleologikoaren bidez izaki naturalen sorrera eta portaera, eta naturaren zenbait prozesu (alegia, animalien gorputz-atalen osatze-prozesuak) azaldu ditzake Aristotelesek. Pentsamendu presokratikoaren aurrean, kausa formalaren eta azken kausaren garrantzia azpimarratzen du, izaki naturalen bizitza eta portaera ezin baitaitezke zuzen azaldu ikuspegi materialista hutsez soilik baliaturik. Beraz, Aristotelesen munduari buruzko deskribapenean materia, beharrezkoa bada ere, ez da nahikoa. Haren ustez, formak eta helburuak, benetan, naturan existitzen dira, eta haien bidez izaki naturalen sorrera, portaera eta barneko egitura azaldu daitezke. Formaren eta xedearen arteko identifikazioari buruz esandakotik bi ondorio atera daitezke: a) forma substantzia sentigarriari errealitatea edo izana ematen dion osagaia da; b) izaki naturaletan, formak izaera teleologikoa du.

Laburbilduz, *Metafisikaren* erdiko liburuetan zehar, Aristotelesek *izan* terminoaren lau zentzuak —alegia, *akzidentalki*, *berez*, *egiazko eta faltsu gisa*, eta *potentzian eta egintzan*— ikertzen ditu. Izatearen zentzu horien artean zentzu lehena *substantziari* dagokiola argudiatu ondoren, argudiatzen du substantzia, zentzu estuan, *forma* gisa ulertu behar dela, eta ez *materia* edo *konposatu* gisa. Bestalde, forma deskribatzerakoan, Aristotelesek baieztatzen du substantzia sentigarriaren forma definizioan adierazitako esentzia dela, substantzia horren xedearekin eta printzipio egituratzaile, banatzaile, bateratzaile eta egilearekin identifikatua dena.

²⁵ «ἡ φύσις διττή, ἢ μὲν ὡς ὕλη ἢ δ' ὡς μορφή, τέλος δ' αὕτη, τοῦ τέλους δὲ ἔνεκα τᾶλλα, αὕτη ἂν εἴη ἡ αἰτία, ἢ οὐ ἔνεκα» (II 7, 199a31-33).

²⁶ «φύσις δὲ ἢ τε πρώτη ὕλη (...) καὶ τὸ εἶδος καὶ ἡ οὐσία: τοῦτο δ' ἐστὶ τὸ τέλος τῆς γενέσεως» (V 4, 1015a7-11).

Erreferentziak

- AGUIRRE, Javier (2008), *Aristotelesen Metafisikari sarrera*. Donostia: Jakin.
- BOSTOCK, David (1994), *Aristotle. Methaphysics Z and H*. Oxford: Clarendon Press.
- BRENTANO, Franz (1995), *Sui molteplici significati dell'essere secondo Aristotele*. Milan: Vita e Pensiero.
- CALVO MARTÍNEZ, Tomás (1994), *Aristóteles. Metafísica*. Madril: Gredos.
- CASSIN, Barbara & NARCY, Michel (1989), *La décision du sens*. Paris: Vrin.
- FURTH, Montgomery (1986), *Aristotle. Metaphysics Books VII-X*. Indianapolis: Hackett.
- GRAYEFF, Felix (1974), *Aristotle and his School. An Inquiry into the History of the Peripatos With a Commentary on Metaphysics Z, H, Λ and O*. Londres: Duckworth.
- KIRWAN, Christopher (1971), *Aristotle's Metaphysics Books Γ, Λ and E*. Oxford: Clarendon Press.
- KUNG, Joan (1986), «Aristotle on "being is said in many ways"». *History of Philosophy Quaterly* 3, 3-18.
- REALE, Giovanni (1995), *Commentario alla Metafisica*. Milan: Vita e Pensiero.
- ROSS, David (1997), *Aristotle. Metaphysics*. Oxford: Clarendon Press.
- TRENDELENBURG, Friedrich Adolf (1994), *La dottrina delle categorie in Aristotele*. Milan: Vita e Pensiero.